


Banatu ez eraldatu!



AZKEN BERRIAK

2024/10/21
IRAKASLEAK

BIRBAREMAZIOA 2024/2025: BEHIN BETIKO ZERRENDAREN BOSGARREN ALDAKETA ARGITARATU DA:

Bi **berrikuntza** nagusi ditu aurtengo prozesuak; alde batetik, 2023/2024 ikasturtean karrerako funtzionario izendatutako pertsonak kanporatuko dira eta bestetik, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoen eta Lanbide Heziketako Sektore Bereziakoko Irakasle Espezialisten Kidego berriaren zerrendak berrantolatu dira, informazio zehatzagoa eta bestelakoa [hemen](#).

LANPOSTU ZERRENDA ETA LANGILEAK BIRBANATZEKO PROZESUAK:

Lanpostu Zerrenda (LPZ) eta langileak birbanatzeko prozesuen (adskripzioak) behin betiko proposamenak argitaratu dira. Bigarren Hezkuntza, Lanbide Heziketako Teknikariak, Hizkuntza Eskola Ofizialak, Erdi Mailako Musika Kontserbatorioak eta Arte Eskoletako irakasleentzat. Kidego honetako adskripzioaren inguruko [araudia](#) eta behin betiko proposamenak [hemen](#).

ZERRENDAK OHIZ KANPO IREKITZEA:

Informatika eta Aplikazio informatikoetako sistemak. Bakarrik honako pertsonentzat: prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa **EZ DUTENENTZAT** eta irakaskuntzako euskarazko **HE2-HE1** betebeharra **dutenentzat**. Prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa eta irakaskuntzako 2.hizkuntza-eskakizuna edo 1.hizkuntza-eskakizuna izanda, EZ da irekiera honetan izena eman behar, "Irekita mantentzen diren zerrendak" atalean baizik.

Eskabidearen epea: 2024ko urriaren 21etik 25era arte, biak barne.

Deialdia eta informazio gehiago [hemen](#).

ARABA: 945 258 404
iraskaskuntzaaraba@lab.eus

BIZKAIA: 674 094 562
irakaskuntzabizkaia@lab.eus

GIPUZKOA: 943 458 562
irakaskuntzagipuzkoa@lab.eus

LANBIDE HEZIKETA: 666 771 794
lanbideheziketa@lab.eus



> irakaskuntza